

2013KO GARAGARRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2013ko garagarrilaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI

- IKER MURUAGA GOIKOETXEA zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2013KO BAGILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2013ko bagilaren 27ko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON. ERA BEREAN, GARAGARRILAREN 5EKO 166/2013 ZK. DEKRETUA BERRONETSI.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

146/2013.- Josu Olazar Azkorra jaunari San Pelaio eguna ospatzeko baimena emotea.

147/2013.- Sari Campo andreari, Eizu taldearen izenean, bagilaren 22an Zubiaurrealdeko futbito zelaian parrillada bat egiteko baimena emotea.

148/2013.- Ion Aranburu jaunari, HOSTOIL PRODUKZIOAK enpresaren izenean, bagilaren 24an "Bost baietz kale" lehiaketako saio bat grabatzeko baimena emotea.

149/2013.- Aritz Jauregizar Torre jaunari, Ernai-ren izenean, batzar bat egiteko baimena emotea.

150/2013.- "APS, S.L. Asesoramiento en procedimiento sancionador", enpresea izendatzea lehiaketako enpresarik abantailatsuen .

151/2013.- Adiel Alves jaunari Udal Erroldan baja emotea.

152/2013.- Deiner Alberto Gallón Moreno jaunari udal erroldan baja emoteko prozedurari ekitea.

153/2013.- Ana Urrutia Iturmendi andreari Tap-Surfing Txapelketa antolatzeke baimena emotea.

154/2013.- Itxas-Alderdi diru-laguntzak esleitzea Nazinoarteko Folk jaialdia eta Andra Mari eguneko ikuskizuna dirala eta.

155/2013.- José María Iriarte Romeo jaunari lizentzia emotea Birjilandako bideko 5. eraikineko igogailua kentzeko.

156/2013.- GAIZKA UGALDE BEGOÑA jaunari lizentzia emotea Gibelorrazagako San Pelaioko 8. zenbakian dagoan arrautza biltegiko uralitazko teilatua zuntzez estaltzeko.

157/2013.- Elexalde-SUR-6 eremuaren urbanizazinoko Igo faseko obren zuzendaritzari buruzko zerbitzuen kontratuari jagokonez, "Arkigest Estudioa, S.L." enpreseari 1.662,50 €-ko behin betiko bermea itzultzea.

158/2013.- Bizilore alkarteari "Ateak Zabalik" jardunaldia egiteko baimena emotea.

159/2013.- Kimuak Aisialdi Elkarteari garagarrilaren 2an eta 3an pabilioian lo egiteko baimena emotea.

160/2013.- "APS, S.L. Asesoramiento en procedimiento sancionador" enpreseari 600 €-ko behin betiko bermea itzultzea.

161/2013.- B-95463758 IK daukan "APS, SL enpresearen zerbitzua kontratatzea, beti be Bakioko Udalean trafikoaren eta aparkaleku arautuen arloan (TAO) eta animalien babes eta jaubetza esparruan zigor prozeduraren kudeaketa osoan laguntzeko.

162/2013.- Makatzeko Iturria alkarteari baimena emotea Txakolingunean osasunari buruzko berbaldi bat emoteko.

163/2013.- Maria Paz Garcia Calleja andreak egindako ondare erantzukizuneko erreklamazioa ezestea.

164/2013.- Ines Baraiazarra Apraiz andreaki Gudarien Omenaldia ospatzeko baimena emotea.

165/2013.- “Busti zaitez” kanpaina egiteko baimena emotea.

166/2013.- Lan legepeko beharginen hitzarmenari eusteko erabagia.

167/2013.- Montajes y Servicis JC2000 enpresari artisautza azoka egiteko baimena emotea.

168/2013.- Berbaro Kultur Alkarteari garagarrilaren 8an Zubiaurrealdeko pabilioia erabilteko baimena emotea.

169/2013.- Irati Abio Muruaga andreaki, Sortu alderdi politikoaren izenean, Kultur Etxeko entsegu gelea erabilteko baimena emotea.

170/2013.- Etzoz Elgezabal Uriarte andreaki, “Bakioko Herrira” alkartearen izenean, Kultur Etxeko batzar gela bat erabilteko baimena emotea.

171/2013.- Alaitasuna pelota taldeari udako frontenis txapelketea egiteko baimena emotea.

172/2013.- Atxulo Kultur Elkarteari Gazte Eguna ospatzeko baimena emotea.

173/2013.- Biziloreri Bentako plazan bigarren eskuko gauzak saltzeko merkatu txikia antolatze baimena emotea.

174/2013.- “Talasoterapia Kiura, S.L.” enpreari udalari zor deutson zenbateko ordaintzeko agindeia egitea.

175/2013.- Josu Andekoetxea jaunari, “Citroenen lagunak” alkartearen izenean, garagarrilaren 20an ibilgailu marka horren kontzentrazioa egiteko baimena emotea.

176/2013.- Javier Aretxaga jaunari baimena emotea, Atxulo zelaiaren inguruan jaima bat instalatzeko.

177/2013.- Raquel Imatz Mauri andreaki baimena emotea, beti be Gibelorrazagako San Pelaio auzoko 68.ean dagoan euste-hormaren mantentze-obrak egiteko.

178/2013.- Ur-agentzia URari baimena emotea, beti be Basigoko bide nagusiko 3.ean dagoan eraikinaren inguruan Estepona ibaiaren kontrol hidrobiologikoa egiteko instalazioa ipinteko. Horrela bada, batetik, ibai nagusiko uraren emaria jakiteko, eta, bestetik, ibai horren uhaldien jarraipena denbora errealean egiteko.

179/2013.- “Baleuko, S.L., Playmedia Motion Graphics, S.L. eta Telesonic S.A.” aldi baterako enpresen alkartearen faktura onartzea.

180/2013.- Aurreko ekitaldietan onartutako eskubideen hasierako saldoa aldarazteko/ezeztatze espedienteari hasiera ematea.

181/2013.- Akatsez hartutako betebeharren ezeztapena egiteko espedientea hastera.

Felix Jauregizar zinegotziak 181/2013 dekretuari buruzko azalpenak eskatu dauz; izan be, bertan azaltzen dan akatsagaitik hartu dala erabagia adierazo dau.

Horrezaz, idazkariak dino dekretu hori egiteko arrazoia hauxe izan dala, beti be bere 2013.05.03ko txostenean azaltzen dan modura: Elexalde eremuko urbanizazio obren lehenengo fasearen esleipenaren zenbatekoa 1.075.731,22 eurokoa (BEZa barruan) izan zan ezker, udal aurrekontuan horrela zainpetu zan, baina, azkenik obren likidazioaren zenbatekoa 975.042,01 eurokoa (BEZa barruan) izan arren, udal aurrekontuan ez zan beharrezko zuzenketarik egin, eta, hori dala eta, egin da dekretua.

Horren ostean, udaleko lan legepeko beharginen hitzarmenaren ganean garagarrilaren 5eko 166/2013 dekretua berronetsi behar dala eta, zinegotziek erabagi horren nondik norakoaren jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak 166/2013 dekretua berroneste aho batez erabagi dau.

3.- GARABI-AUTOAREN ZERBITZUA BERRESKURATU ETA, HORRENBESTEZ, “GERTEK” ENPRESEAGAZ SINATUTAKO ONDORENGO KONTRATUA ALDARAZO: BAKIOKO BIDE JAKIN BATZUETAN IBILGAILUAK APARKATZEKO DENBORA MUGATZEARI, ANTOLATZEARI ETA KONTROLATZEARI BURUZKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA, BAI ETA GARABI-AUTOARENA BE.

Zinegotziak gai horren inguruan alkatearen barne aginduaren eta idazkariaren txostenaren jakitun izanik, Aitor Apraiz Imatz alkateak ondorengo gogoratu dau: “Gertek” enpreseagaz sinatutako kontratuaren barruan egoan garabi-autoaren bidez ibilgailuak bidetik kentzeko zerbitzua udalak 2011ko denboraldia hasi orduko (garagarrila-iraila) berreskuratu eban ezker, egoera hori zuzendu beharra dago, kontratuaren aldarazpenari buruzko erabagia hartuz; sasoi hartan berreskurapen hori egiteko ez zan prozedurarik egin-eta.

Segiduan, zinegotziek botoa emoteari ekin deutsie; eta, horrela bada, “Gertek” enpreseagaz sinatutako kontratua aldarazoteko, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Florencio Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotziek aldeko botoa emon daben ezker, eta, beraz, aldeko boto kopurua ezezkoa baino gehiago izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

Bakioko Udalak bidetik ibilgailuak kentzeko zerbitzua berreskuratu dauan ezker, “GERTEK, sociedad de gestiones y servicios, S.A.” enpresearen eta Bakioko Udalaren arteko 2009ko garagarrilaren 1eko kontratua aldarazotea. Izan be, kontratu hori Bakioko bide jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko

denbora mugatzeari, antolatzeari eta kontrolatzeari buruzko zerbitzuaren eta garabi-autoaren zerbitzuaren kudeaketari jagoko.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

4.- 2013KO UDAL AURREKONTUAREN 2. ETA 3. ALDARAZPENAK ONARTU.

Zinegotziek aldarazpen horreen espedienteen barri daukien ezkerro, Aitor Apraiz alkateak horreen ganeko azalpen laburbildua emon dau, era honetara:

2. aldarazpenari jagokonez dino: Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuari buruzko apirilaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 31. artikulua arabera, kreditu gaitze modalidadea da. Beraz, 33.617,00 euroko sarrera dago, hau da, Udalkutxari ez jako diru hori itzuli beharko, beti be udal honetan 2013.06.17an sarrera izan eban Foru Aldundiaren diru-laguntza emakidaren ebazpenaren arabera. Diru sarrera hori udal aurrekontuko diru sarreraren orrian 4. kapituluaren zainpetzen da eta gastuen orrian, barriz, 9. kapituluaren, mailegua amortizatzeko erabiliz.

Aldarazpen horrek ondoren azalduko dan 3. aldarazpena egiteko bidea emoten dau, ze aitaturako bigarren hori egin ezik, hirugarrena ezingo litzateke egin, gastu arauaren betetze maila urratu barik (espedientearen ageri dan 2013.07.18ko txosteneko taulan ageri dan modura).

3. aldarazpenari jagokonez dino: Toki Erakundeetako Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2013 Foru Arauaren 31. artikulua arabera, kreditu gaitze modalidadea da. Beraz, 43.705,00 euroko diru sarrera dago, Bakioko Udaltzako 2012ko zementariaren 29an egindako bilkuran onartutako hitzarmenean oinarrituz, hau da, Bakioko Udalak eta Sukibide, S.L. enpresek sinatutako hitzarmenean. Sarrera hori udal aurrekontuko diru sarreraren orrian 6. kapituluaren zainpetzen da eta gastuen orrian, oster, inbertsino atalari buruzko 6. kapituluaren, beti be hitzarmen horretan jasoten dan erabilera emoteko asmoz, hau da, SR6 eremuko Plan Partzialaren aldarazpena ordaintzeko.

Amets Jauregizar zinegotziak dino tristea dala Bizkaiko diru laguntza hori (33.617,00 euro) jaso eta mailegu bat ordaintzeko erabiltea.

Alkateak dinotso: horrela izan behar da, ze doikuntza planaren arabera, edozein diru sarrera mailegua ordaintzera bideratu behar da gastu arauaren betetze maila errespetatzeko, diru sarrera beren beregi gastu zehatz bat ordaintzeko baldintzatuta egon ezik.

Ametsek adierazo dau esan gura dauana dala horrelako diru sarrera pozik hartzen doguzala baina tristea dala zertarako erabilten diran, jakinda nondik datozen, hau da, danon dirua kudeatzen dauan erakunde publiko batetik.

Alkatearen eta Ametsen artean eztabaida izan da, eta bakotzak berenari eutsi deusto.

Azkenik, Felix Jauregizar zinegotziak dino udalak daukan zorra eukitea tristea dala, ganera, hainbat urtetan zorpean jarraituko dauala jakinda.

Segiduan, zinegotziak botoa emoteari ekin deustie; eta, horrela bada, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Florencio Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotziak aldeko botoa emon daben ezkerre, eta, beraz, aldeko boto kopurua ezezkoea baino gehiago izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

A) 2013ko udal aurrekontuko 2. aldarazpen espedientearen onartzea, kreditua gaikuntza modalidadean.

**KREDITUAK GAITZEKO ESPEDIENTEA OSATZEN DUTEN
SARRERA KONTZEPTUAK ETA GASTU PARTIDAK**

Sarreraren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
420.14	Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza, Udalkutxa Negatiboak, 2012	0,00 €	33.617,00 €	33.617,00 €
GUZTIRA		0,00 €	33.617,00 €	33.617,00 €

Gastuen egoera

Kreditu gaikuntzek ondoko aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
121.933.00.05	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa	0,00 €	33.617,00 €	33.617,00 €

	2012			
	GUZTIRA	0,00 €	33.617,00 €	33.617,00 €

B) A) 2013ko udal aurrekontuko 3. aldarazpen espedientea onartzea, kreditua gaikuntza modalidadean.

**KREDITUAK GAITZEKO ESPEDIENTEA OSATZEN DUTEN
SARRERA KONTZEPTUAK ETA GASTU PARTIDAK**

Sarrereren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu kontzeptua	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
619.017	Sukibide S.L. enpresaren ekarkin konpromiso irmoa	0,00 €	43.705,00 €	43.705,00 €
	GUZTIRA		43.705,00 €	43.705,00 €

Gastuen egoera

Kreditu gaikuntzek ondoko aurrekontu partidei eragiten diete:

Aurrekontu partida	Izendapena	Hasierako zainpeketa	Behin betiko zainpeketa	Aldea
432.642.00.02	Plan partzialaren aldarazpena	0,00 €	43.705,00 €	43.705,00 €
	GUZTIRA		43.705,00 €	43.705,00 €

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaechen zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

5.- 2012KO KONTU OROKORRARI BURUZKO ERABAGIA HARTU, BETI BE AURKEZTUTAKO ALEGAZINO IDAZKIAK EBATZI OSTEAN.

Aitor Apraiz Imatz alkate jaunak ondorengoa adierazo dau:

“2012ko kontabilidade ekitaldiko Kontu Orokorra (atal honeek osotuz: egoerearen balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria, aurrekontuaren likidazioa eta urteko egoerari buruzko eranskinak), kontuen udal batzorde bereziaren txostena jaso ostean, jendaurrean ipini zan 15 egunean –horretarako herriko taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz–, interesatuek erreklamazioak edo oharra aurkeztu ahal izateko. Espedientean Xabier Goitia Garaik eta BILDU/BAKIO udal taldeak, bakotzak bere aldetik, aurkeztutako alegazio-idazkiak jasoten diran ezker, Idazkariak txostenak idatzi dauz. Beraz, Kontu Orokorra udalbatzarrari aurkezten jake onarpena emon deion, hala behar balitz.

Alegazioak aztertu ostean esan geintekoz izapidetutako espedientea osotuago edo landuago egin daitekela, baina, edozelan be, indarrean dagoan Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuari buruzko apirilaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eskatzen dauan gitxiengo dokumentazioa beteten da, eta, edozelan be, bai Bildu udal taldeak, bai eta Xabier Garay jaunak be aurkeztutako alegazioei erantzuten jake”.

Felix Jauregizar zinegotziak dino:

Kontu Orokorra ez dau irudi fidela erakusten, eta, horrezaz, idazkariaren txostenean be ageri da “hobetzeko moduko alderdiak egon daitezkeen arren...”, beraz, modu batean arrazoiak emoten deusku. Beste aldetik, Bilduk alegazioan eskatzen eban 2012ko aurrekontuaren luzamendua behar dan modura egiteko memoria eta txosten baten oinarrituta egon beharko litzatekela, eta idazkari-kontuhartzailearen txostenean jasoten da agiriok aurkeztea ezinbesteko baldintza ez izan arren, gomendagarriak dirala. Horrenbestez, Kontu Orokorra osotuta egoteko agiri bi horreek egon beharko litzatekez.

Udaleko txostenean ageri da kontabilizatu bako fakturak aplikatu bako ordainketetan dagozala. Eta horrerri buruz esan behar da fakturak kontabilizatu barik badagoz legez ezin dirala ordaindu, eta ordaindu izanaren erru handia idazkari-kontuhartzaileak daukala. Horren harira apirilaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 45. artikuluan ageri dana, gogoratu dau.

Hor dago ere bai “A” eremuko konpentsazio baten sarrera, Bitz-Ganek Bakioko Udalarri 1997an urbanizazio kuota modura ordaindu eutsona, eta ez dakigu nori ordaindu jakon eta non eta zer proiekturi jagokon.

Udal plantillari buruz udal txostenean erantzuten da 2012koa 2011ko berdina dala, baina Bilduren arabera, 2012ko udaltzaingoaren plantilla handitu egin zan 2011ko ekitaldikoagaz alderatu ezker..

Udal txostenean luzamenduaren araubidea dan apirilaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 50. artikulua berba-berba aitutzen dan arren, artikulua horren 6 eta 9. puntuan ageri dana ez da bete.

Kiura gaian udala Itsasertz-Mugarte Sailart ordaintzen ibili da jakin barik enpresearen aldetik kobratuko danik.

Udaleko Ondasunen eta Eskubideen Inbentarioaren ganean Bilduren alegazinoetan azpimarratzen da inbentarioa legez eguneratuta egon beharra, eta horrerri buruz idazkariak be arrazoia emoten eban arren, ez da ezer egin.

Elexalde eremuko urigintzako aprobetxamenduak dirala eta, udalari zor jakozan kobratzeko premiameduzko prozedura erabili ahal da, baina ez da erabilten. Izan be, kuota horreek kobrau ez diran arren, euren pentzura gastuak egin diran ezkerro, horrek udalaren zorra handitzea ekarri dau.

Aurtengo udal aurrekontuan be ICIO dala-eta zenbateko bat zainpetu da eta, ganera, horren pentzura gastuak egingo dira, baina zenbatekoaren zati handi bat kobratzen ez bada, udalaren zorra handitu egingo da, eta beste maileguren bat eskatzeko izango gara.

Hori dala eta, Alkateak dinotso hori gertau ahal izango bada be, aurrekontuko beste kapitulu batzuetan zainpetutakoa baino diru sarrera gehiago izateko itxaropen zantzuak dagozala.

Felixek erantzun deusto esanez hori ikusi beharrekoa dala, baina, edozelan be, Bilduk badirala sei hilabete kontabilidateko agiriak eskatu ebazana, eta erantzunik jaso barik segitzen dauala.

Azken horrerri buruz Felixen eta Alkatearen artean eztabida izan da.

Azkenik, zinegotziek botoa emoteari ekin deustie, eta bi bider bozkatu ostean, boto kopuruari jagokonez, bietan berdinketa egon dan ezkerro, alkatearen kalidatezko botoari esker (toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan Legearen 46. artikulua), Udalaren Osoko Bilkurak ondorengo erabagia hartu dau EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Florencio Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz eta espedienteaz azaltzen diran txostenak eta gainontzeko agiriak kontuan izanik:

LEHENIK: Xabier Goitia Garai jaunak aurkeztutako alegazinoak ez onartzea.

BIGARRENIK: BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako alegazinoak ez onartzea.

BIGARRENIK: Bakioko Udaleko 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Feliciano Jaureguizar, Alberto Bilbao, Amets Jaureguizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaache BILDU/BAKIO udal taldeko zinegotziek, batetik, kontu orokorra onartzearen aurka bozkatu dabe; bestetik, BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako alegazinoen alde; eta, azkenik, Xabier Goitia jaunak aurkeztutako alegazinoen ganean abstenidu egin dira.

6.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON.

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako

fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2013ko garagarrilaren 22ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko, eta alkate jaunak horren edukia irakurri dau, agiri hori zinegotzi guztiek daukien arren. Izan be, ordaintzeko epemugan ordaindu bako fakturen zenbatekoa guztira 2.275.197,38 eurokoa da, egiaztagiri horrerri erantsitako zerrendaren arabera.

Felix Jauregizar eta Alberto Bilbao zinegotziek galdetu dabe fakturen zerrendan ia zergaitik azaltzen dan 180 eguneko epemuga, indarrean dagoan legeak 2013. urtean fakturak ordaintzeko 30 eguneko epemuga jarten badau.

Idazkari-kontuhartzaileak dino ordaintzeko epea 30 eguneko dala, fakturea udaletxean aurkezten danetik kontetan hasita.

Zinegotzi horreek dinoe 180 eguneko epea agertzea idazkari-kontuhartzaileari jagokon akatsa dala.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Felix Jauregizar zinegotziak orain sei hilabete BILDU/BAKIO udal taldeak egindako eskaerea berronetsi dau; hau da, fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoeraren ganean eskatu eban dokumentazinoa jasotea.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria